

KALE INKESTA ALKATEGAIK ZE EZAUGARRI ZER BERRI ALDERDI POLITIKOEN
BALORAZIOAK SUTONDOAREN EPELEAN ODOL EMAILE BATI ELKARRIZKETA

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 62. alea 2003ko urtarrilaren 31a



Zabalik dago
H.H.I. ko
Matrikulazio Epea



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxe: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Iñarra Harategia

Telefona: 943751825

*"Jendiak betiko karnizerixetara
etortzen jarraitzen dau"*

Noiz hartu zenduan harategixa?

Ni 1974an hasi nintzan hemen lanian, baina lehenagotik be aitta eta tiak egitten zeber lan hemen.

Ze produktu saltzen dittuzu?

Danetarako okelia: behixana, oilaskuak, txarrikixa... Euskeria ez, euskeria erregalau egitten dot.



**Eta zein da
gehixen saltzen
dozun okelia?
Jendiak gehixen
txahalana
eskatzen dosta.**

**Saltzen dittuzun
txorizuak zeuk
egindakuak al
dira?**

**Bai nik egitten
dittut eta
odolostiak bebai.**



Gaur egun jendiak supermerkatuetarako joeria daukala ikusitta, zelan eragiten dotsa horrek zure negoziuari?

Eragiten dau baina ez hainbeste. Okelia erosteko orduan jendiak nehixao izaten dau konfiantzazko toki batera juatia, momentuan bertan preparauta eta okelia ondo ikusten dozula.

Gustora zare zure bezeruekin?

Bai, oso gustora. Jendiak betiko karnizerixetara etortzen jarraitzen dau.



Gaur be biharrera !

GURUTZE ARIZNABARRETA

Lana eginda bizi ala lanerako bizi, hori da galdera. Ez dakit! topa diezaiola bakoitzak erantzunik egokiena, baina gauza bat argi dago lanetik eta lanari esker bizi gara. Eta behar behar dugu, jango badugu behintzat. Zorteduna bazara eta eguneko zortzi ordu besterik egiten ez badituzu, zure bizitzan zehar 100.000 bat ordu pasatzen dituzu lanean. Gustuko lana bada zorionak!!! Baina zenbati entzuten diogu horrelakorik. Zenbat aldiz zoriondu zaituzte zure lanagatik? Zenbat aldiz gertatu da kontrakoa? Zenbatek egiten du bere gustuko lana? Zenbatek jasotzen du benetan dagokion diru saria? Ez naiz sartuko langabeziarekin, lan istripuekin, gehiegikeriekin, estren kontuakin, ETTekin, akosoeekin, entxufeeekin, zabor kontratuekin...ez naiz sartuko... Aspaldi honetan gehigitxotan ageri dira dezepzioak, beldurrak, inpotentzia... jendearen ahotan. Ez da harrizkoa! Etxebizitzen prezioa esate baterako... Ez dago eskubiderik!!!! Mesedez...! nola da posible oinarritzko soldata 451eurotako izanda, etxebizitzak 240.000 bat euro balio izatea? Karteletan "etxebizitzak salgai" jarri beharrean zergatik ez dute jartzen "hipoteka ezazu zure bizitza" mesedez eta faborez...lotsagarri eta iraingarri benetan!!!

Bestalde lanetik lanera alde handiegia dago... badakizue zenbat kobratzen duen hegazkin kontroladore batek hilean zaz-

piehun bat mila pta eta badakizue zenbat egunetan egiten duen lana? Hilean bi edo hiru egunetan. Bere lanean kontzentrazio handia behar omen dute!!! Ta mehatzariek...?

Baina, barka beza irakurleak kontu hau fuel orbana bera baino beltzago badoa. Ez pentsa! Ezagutzen dut lagun bat lanera gustura eta irrifartsu doana, miseria bat kobratu arren eta lankideen inbiriak eta txibatazoak bizi izan arren, kristonak eta bi entzun arren lanera bere ordua baino ordu erdi lehenago heltzen dena, langile fin fina. Nere lagun horrek bizi guztia eman du lanean, eta orain hirurogeita bost urte bete eta osasunak larregi lagutzen ez duenean, berak balio duen guztia gehien demostratu nahi duenean, disfrutatu ez duen guztia disfrutatzeko jubilazio apurra geratzen zaio. Baina orain arte irrifarrea erakusten jakin duenak topatuko ditu irriak aurrerago ere.

Zorionik beroena eta animo zaparradirik handiena lerro hauetatik nere lagunak egin duen antzera mundu aldrebes honi aurre egiten dion guztiari, elkarlana, adiskidetasuna eta errespetua jorratzen dakienari, zuri. Hau baita beti gure esku dagoen bakarrenetarikoa. Beste guztia, orain arte bezala, zortearen esku lagako dugu. Bukatzeko...bukatzeko... estimatuta dago hau irakurtzeak eman dizun lana!!! Mila esker!

Telegrapak

Aurtengua edur urtia. Stop. hobe da zurtasuna zurikeria baino. Stop. garaiotan bixak datoz goititik bera baina ez dia gauza bera. Stop. Hauteskundiak urreratzen doiazen neurrixan. Stop. gure "ordezkarixen" tonuak be gora egitten dau. Stop. bakoitzak bere egixak, bakoitzak bere penak. Stop. baina hori bai. Stop. burua beti tente. Stop. nahiz eta buru gutxi izan, beti tente. Stop. Polikiroldegixa be badator. Stop. laster danok piszinara. Stop. kabidu be ez gara egingo juango dan jente piliarekin. Stop. Epa H.H.I.! esan dogu. Stop. eta ez dosku inok ulertu. Stop. EPA! esan dogu. Stop. eta bai, ulertu gaituzte. Stop. euskaldun katoliko ez praktikantiak garalako izango da. Stop. ez praktikantiak batez be! Stop. Beste etxebizitza bloke bat egin bihar dabe. Stop. altua izan go da. Stop. atzeko blokeko bizilagunendako. Stop. eta erosi bihar dabenendako. Stop. altuegixa. Stop. metrotan eta eurotan. Stop. Eta Pil-pileanen bazkide kanpaina?. Stop. euskarari bidia egingo dotsagu. Stop. sasiarte honetan barraskiloa KORRIKA. Stop. AEKri lagunduz, Herri bat geroa landuz. Stop. Otsailaren 3an San Blas. Stop. 4an Santa Ageda. Stop. eta San Balentin?. Stop. zurekin egunero maittia, zurekin egunero. Stop. (muxutxubek) MUA MUA!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotia: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta irizien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako zentruko 2002-2003 ikasturteko bigarren lauhilabetealdirako matrikulazio epea astelehenean zabalduko da. Zentrua publikoak denez, matrikulazioa dohainik da eta 18 urtetik gorako edozein pertsonak eman dezake izena..



Zorion agurrak



Iñigo Cano
1983 - 2 - 2
Zorionak!
Segi zaran modukua
izaten! Jator hori!
Etxekuaq maitasunez.

David Rascon

1-31

Zorionak! Ez galdu sekula umore on hori!
Onar, emazte eta senidien partez.

hildakuak

Juan Jose Gantxegi

jaiotakoak

Julio Cortes Cortes

Olatz Alberdi

Goizane Plata Mateo

Ajenda eta Oharrak

Otsailaren 1ean

AHTaren Aurkako Manifestazioa Euskal Herri
Mailakoa Tolosan, arratsaldeko 17:00etan

* Udalak pertsona bat behar du buzoneo lanak egin eta erakusketak zaintzeko.

- Lana orduka ordainduko da.

- Beharrezkoa da euskeraz jakitea

(Erakusketetan aurkezpenak eta harremanak garatzeko).

Izen ematea Udaleko Idazkaritzan egin behar-
ko da otsailaren 7^a baino lehen.

* Udala aldizkariko zozketa:

Irabazlea: Egoitz Unamuno

Adi, gazte!



LEHIKETAK

***Basauri:** Ganorabako komiki lehiaketa.
Gaia libresa da, baina pertsonai guztiek
jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan
behar dute, autoreak berak sortutakoak.
Lan bakoitzak A4 neurriko lau orri iza-
nan ditu gehienez. Lanak kultur etxean
eman behar dira martxoaren 31 baino
lehen.

LAN ESKAINTZAK

Langai (www.lanbide.net)

*Bergarako enpresak **lau enkofratzaile**
behar ditu. Erref 94251/2

*Bergarako aldi baterako enpresak **3**
auto inspektore behar ditu.. Erref
94717/3

*Eibarko enpresak **promotorea** behar
du. Erref. 94649/3

*Durangaldeko enpresak **sukaldari**
laguntzailea behar du

(Lanpostu hauetan hautagai moduan
sartzea eskatu nahi baduzu 901222901
telefonora deitu.)

*Oarsoaldean kokatuko den kultur ekoiz-
pen enpresa batek **2 kultur koordinat-
zaile, bulegaria** (informatika eta konta-
bilitatea) , saltzailea eta begiraleak
behar ditu. Soldata: 1000 eta 1500 e
artekoa.(Cva bidali eps2003@telefoni-
ca.net helbidera.

*Oñatiko turismo bulegorako **arduradu-
na** behar da. Interesatuak deitu 943-
718808 telefonora

*Gazte jendea behar da **harrera zerbi-
tuetan lan egiteko**. Euskaraz jakitea
eskatzen da. Curriculumak 32 PK
(Elgoibar)

***Langileak behar da** banaketa lanak
egin eta almazenerako. Gida baimena
edukitzea ezinbestekoa. 608394305

BESTELAKOAK

***Ternua Gore-tex txamarra salgai** 150
euro. Ia erabili gabea (4 aldiz)

***Urkotronik markako goxoki makina**
salgai. Urte eta erdi. Temperatura bikoit-
za. Merkea: 655712959

***Bikientzako kotxe-kapota salgai**
943744408

***Altzariak hartuko genituzke** lokal bat
hornitzeko 616621871

***Eskusoinua:** 120 beheko nota dituen
eskusoinua salgai.943795336

***Reflex argazki kamara** erosiko nuke.
660562647

Gutunak

LEGEGINTZALDIAREN BALANTZEAZ

Egungo legegintzaldiaren balantzea eta hurrengoaren aurreikuspena egitea proposatu zigun Pii-pilean Aldizkariak. Eta hara non, Alderdi Popularreko Nuñez Jn.k, herri-tarrak objektibotasunez informatu ordez, baieztapen faltsuak egin zituen, Alkate honek Ppko boto-emaeleak baztertzan dituela esanaz besteak beste. Lehenik eta behin esan behar dut, soraluzetarrak alderdi politiko-koen interesen gainetik daudela Alkate honentzat, eta horrela frogatzen du nire jokabideak. Gobernu Batzordea, udal kudeaketaren organo erabakitzailea, zinegotzi guztiei irekita dago Alkatearen desioz. Honekin esan nahi dut, Nuñez Jn. Eta gainontzeko Zinegotziak Gobernu Batzordera etortzen direla eta udaleko gai guztien informazioa jasotzen dutela. Eta honek normala badirudi ere, ez da horrela, Soraluze baita oposizioari Gobernu Batzordera joaten uzten dion inguruko herri bakarrenetarikoa. Urte hauetan, gainera, ehunka soraluzetar atenditu ditut pertsonalki eta nire atea goiz eta arratsaldez irekita egon da eta dago nahi izan duen edozeinentzako. Nahasketa nagusi den garai hauetan, guztia ontzat ematen da dialektika politikoan. Baina ez luke horrela izan behar.

Alberto Sodupe Oregi
Soraluzeko Alkatea

ESKERRAK, HIZKUNTZA ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDEAK DIREN!!!

Desobedientzia zibila omen da Euskal Herri aske eta euskaldun bat lortzeko bidea, hori diote behintzat Eusko Jaurlaritzan zenbaitek. Baina lotsagabeko hauek zeri planteatzen diote desobedientzia?, euskaldunon eskubideei akaso? Bai bai, ez zaitetz harritu irakurle. Euskara ofiziala omen den EAE hontan, euskaldunon eskubideei muzin egiten die Eusko Jaurlaritzak etengabe. Orain gainera, eskubide horien bermatzea eskatzen duen jendea auziperatzen hasi dira. Horrela, gaur, hilak 31 dituen hontan, Euskal Herrian Euskaraz-eko 3 taldekide epaituak izan dira Bilboko epaitegian. Zergaitia jakin nahi? Ba, osasungintzako oposaketetan azterketa gelako zenbait mahaitara kateatzeagatik. Eta eginiko delitua zein den? Ba, euskaldunon eskubideak defendatzea!! Mediki euskaldunak edukitzeko eskubidea aldarrikatzea!! Soraluzetik gure babes osoa bidaltzen diegu 3 epaituei. Gainera, gaztelaraz epaitu nahiko dituzte, baina ez dute lortuko. Hizkuntza arrotz baten egin nahiko duten epaiketa hortan ere eskubide urraketa agerian utzi araziko delako. Euskaldunak garelako, geureak diren hizkuntza eskubideak defendatu eta borrokatuko ditugu!! Euskal Herrian Euskaraz, eta kitto!!! Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

*Zure publizitatea
hemen joan daiteke*

Deitu: 943 75 13 04

(Enara)

Zer irizten dotsazu?

Zein ezaugarri bihar dittu alkategai batek ?



Endika Zubizarreta

36 urte

Iturgina

Normalian, politikuak, hauteskunde garaian eukitzen dabe harreman gehixen herritarrekin, eta alkatiak harreman hori mantentzen jakin bihar dau legegintzaldi osuan.




Karle Eguren

24 urte

Langilia

Alkategai batek herrixan biharak asezteko lan egin bihar dau. Pertsona jantzi bat izan bihar dau maila guztietan. Herritarren benetako eskarixak entzungo dittuana, bai azpiegitura, gizarte eta kultura kontuetan.



Abelino Gil

61 urte

Jubilatua

Nik uste dot alkate batek danekin berba egin bihar dabela, eta jatorra izan bihar dala danekin. Herrixan gauza berrixak egitteko egitasmuak izateko.



Edurne Labiano

71 urte

Jubilatua

Alkatiak herrixandako gauzak egin bihar dittu, bai jende gaztiantzat eta baita edadetuentsat be.



Jesus Moya

53 urte

Langilia

Normalian, alkatia herritarrekin ondo moldatu bihar da eta baita gauzak egin be. Oin egitten dabena ondo eginda dao, etxebizitzak, parkiak,.... baina oinarrizkuena herritarrekin ondo moldatzia litzake.



Maria Luisa Fernandez

59 urte

Etxekoandria

Alkate batek ezaugarri asko euki bihar dittu. Herrixantzako dana emon bihar dau eta herritarrekin harreman onak euki bihar dittu.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21

20590 SORALUZE

Albesa parean 56 etxe egingo dira



Bideragarritasun arazoengatik hainbat aldiz lanak hasi eta geldituta izan ostean, hasi dituzte dagoeneko Albesa pareko "Errekalde 25-26" eremu-ko etxebizitza multzoa eraikitzeko behinbetiko lanak. Nafarroako Provas-

na S.L. promotorak sustatutako proiektua da eta udaleko hirigintza arduradunak jakinarazi digunez, lur eremu horretan 56 etxebizitza eta 80 garaje plaza egitea aurrakusten dute. Etxebizitza multzo honek u-itxurako forma izango du goi partera begira, erdian plaza bat eta plazaren inguruan lokal komertzialerako sarbidea erreztuko duten arkupeak izango dituelarik. Altuera berriz, gutxi asko, atzean dagoen telefonikako etxe zaharraren hirugarren pisurartekoa izango omen dute. Lanek bi urte inguruko iraupena izango dute eta Union Constructora izango da enpresa eraikitzailea. Etxebizitza zein garaje plazak salgai daude dagoeneko Amutxastegiko etxeak saltzen diren toki be-
rean.

Etxeazpietako lokalak etxebizitza moduan egokitzeke azterketa

Herrian etxebizitzen alorrean dagoen eskeintza ugaritu eta dibertsifikatzeko asmoarekin, etxe azpietako lokal komertzial eta industrialak etxebizitza moduan egokitu ahal izateko a ukera aztertzeko eskatu dio Udalak Julio Bilbao arkitektoari (Soraluzeko Arau Subsidiarioen egileari). Azken urteotan, Arrasate, Eibar eta Gipuzkoako beste hainbat Udalek ere antzeko egitasmoak bultzatu dituzte euren Udalerrietako etxepeetan etxebizitzak egiteko baime-nak emanaz. Lokal hauek bizileku moduan egokitzea etxebizitza berri bat erostea baino askoz ere merkeagoa gertatzen da gehienetan. Soraluzen asko dira erabilpen handirik ez duten etxe-peak eta beraz, egitasmo honetan parte hartzeko eskaera handia izango dela



aurrikusten du Udalak, nahiz eta horietako batzuk bizigarritasun maila minimora ez iristearen ondorioz egitasmo honetatik kanpo gelditu beharko duten.

Ikastetxeko jantokia itxi egingo da aurten



Herri Ikastetxearen eraberritze lanak direla eta, lan hauen inguruan gaxtetzokoe izan dezaketekoen arriskua kontuan hartuta, lanen arduradun enpresak egindako eskaria onartuz, urte hasieratik aurrera jantokia itxteko erabakia hartu dute Hezkuntza Saileko arduradunek. Ikastetxeko Zuzendaritzak babes neurriak ezartzea proposatu jantokia zabaltzeko ahaleginak egin bazituen ere, ezinezkoa gertatuko da lanek dirauten bitartean jantokia zabaltzea. Arazoari irteera bat eman nahian, beste aukera batzuk aztertzeari ekin dio Gurasoen Elkartearekin batera.

Polikiroldegia otsailean zabalduko da ziurtasunez



Arazo eta atzerapen batzuen ostean dagoeneko garbiketa lanak egitea da Polikiroldegiko frontoia eta piszina zabaltzeko gelditzen dena. Garbiketa lanak otsailaren erdialdea baino lehen amaituta izango direla segurtatu du Udalak eta lanak amaitu bezain laster zabalduko dituztela atek.



Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



ARRATE IRRATIA

*asteartero
12:40an*

*Soraluzeko berriak
zure etxean.*

Pil-pileanen eskutik.

Udala: 2002ko Balorazioa eta 2003rako Erronkak

Udaleko talde politikoei 2002ko Udalaren jardueraren balantze bat eta 2003rako erronken aurrikuspen bat eskatu diegu. Ale honetan Sozialista Abertzaleak eta Alderdi Sozialistako zinegotzien eritziak jaso ditugu:

Sozialista Abertzaleak *“2003rako erronka nagusienetako bat Udala demokratikoagoa bilakatzea izan behar luke”*

2002ko Udalaren jarduerarik positiboena:

Lorpen positiboen artean, horrenbeste urtetan gure taldeak bultzatu izan dituen hirigintza mailan egiteko zeuden lanak martxan jarri direla, gizarte eragileekin batera bultzatu genuen Bai Euskarari Akordioa,...

Baina zoritxarrez Alkatea bera, nahikoa da bere burua altxatzeko, Udaletxeko aldizkarietan (herritar guttion aldizkaria izan beharko zukeen aldizkarian) egin duen bezala.

Positibo bezala ere esan genezake, gure taldeak Bake Proposamen bat jarri zuela mahai gainean, baina zoritxarrez, alderdi politikoen aldetik, EA-k bakarririk hartu du parte bileretan, PNV-ren-gandik oraindik ez dugu erantzunik jaso, denbora dexente pasa arren.

2002ko Jarduerarik edo gertakizunik negatiboena:

Alde batetik, urte hasieran gure taldeak aurrekontuei begira; Udalbiltza, Emakume arloan, etxebizitzan, kultura, kirolean eta nazioarteko elkartasunaren inguruan eginko gutxieneko proposamenei PNV-EA-k emandako ezetza.

Bestetik, urtero ikusten dugu tasak eta zergak izaten dituzten igoerak, mankomunitatearen gastuen igoerak onartu ezinak izaten direla herritarrentzako eta batez ere diru sarrera txikiak dituztenentzat.

Oso garrantzitsua eta salatu beharrekoa, 2002. Urtea beltza izan dela gure Udaletxeko funtzionamenduari inguruan aritzen bagara, Euskal Herrian demokrazia ezean bizi garelako. Garzonen ilegalizatu nahiaren aurretik,

PNV-EA-k ilegalizatu gintuen, Gobernu Batzordetik kanpora utzi gintuztenean. Alkatearen jarrerari dagokionez, txarrera joan da gurekiko, Pleno askotan hitza kendu digularik eta gauza asko prentsaren bidez jakin ditugularik.

Udalak eta herriak 2003rako duen erronkarik nagusia:

Erronka nagusienetako bat, Udala demokratikoagoa bilakatzea izan behar litzake guztion helburu eta maiatzeko Udal hauteskundeetan, orain arte herriaren ordezkapen zabal eta bigarren indar politikoa izan garen taldearen partehartzea ziurtatzea.

Sozialista Abertzaleak

PSE-EE



Alderdi Sozialista

“2003rako desioa gainontzeko alderdien baldintza berberetan lan egin ahal izatea”

2002ko Udalaren jarduerarik positiboena:

P.S.E.-E.E. rendako, zalantzarik gabe IZARTU programa martxan jarri ahal izana.

2002ko Jarduerarik edo gertakizunik negatiboena:

Ezin lan egin ahal izatea sarritan talde nazionalisten baldintza berberetan, nazionalista ez garenok jasaten ditugun presio eta irainegaitik.

Udalak eta herriak 2003rako duen erronkarik nagusia:

Guk 2003rako desio eta erronka bat daukagu, desioa gainontzeko alderdien baldintza berberetan lan egin ahal izatea da, mehatxu eta bortzarik gabe. Erronka ez dakigu Herriarendako garrantzitsuena izango den baina bai zati garrantzitsu batendako. Jubilatuen Egoitzako Lokala erostea eta bertara sarbidea izango duen igogailua jartzea.

*Soledad del Bosque Zarobe
P.S.E.-E.E. ko Bozeramailea*

Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



**IÑAKI
IÑARRA**

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Sorluze

H.H.I.ko Matrikulazioa zabalik

Inoiz ez da berandu utzitako ikasketei berrekin eta edo irakasgai batzuetan trebatzeko. Otsailaren lehen astean zabalduko da Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako Sorraluzeko zentruaren matrikulazio epea.

Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako zentruko 2002-2003 ikasturteko bigarren lauhilabetealdirako matrikulazio epea astelehenean zabalduko da. Zentrua publikoa denez, matrikulazioa dohainik da eta 18 urtetik gorako edozein pertsonak eman dezake izena. Aurtengo ikasturteko lehen hilabetealdian, 6 irakasle eta 70en bat ikasle (gehienak emakumezkoak) dira eskolatan lan egiten dutenak. Irakasleak errotazio sare bat osatzen dute Oñati, Antzuola eta Bergarako zentruetara batera eta alor eta maila guztietako irakasgaiak ematen dizkiete hurbiltzen diren ikasleei. Oso egoera eta helburu ezberdinak dituen jendea hurbiltzen da H.H.I.ra; langabetuak, edadeko jendea, eskolan porrot egin duten gazteak, etxeoandreak, etorkinak... etab.

Alfabetatze mailatik 2. mailako graduaturarte

Ikaslearen beharrezan araber, alfabetatze mailatik (Lehen Hezkuntza) hasi eta bigarren mailako ikasketen (Institutuko Graduaturarte) artean, prestakuntza maila ezberdin asko eskeintzen ditu Sorraluzeko H.H.I. zentruak.

Eskolen ordutegia malguta da eta ikasturte hasieran egokitzen da osatutako taldeen beharrezan araber. Alfabetatze mailan daudenak edo Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako tituluak lortu nahi dituztenak, egunean 2 ordutik 3 ordura bitarteko eskolak jasotzen dituzte, goizez 9:30etatik 11:30etara eta arratsaldean 16:00etatik 21:00etara bitartean ematen direnak. Maila honetan ikastetxe eta institutuetan lantzen diren irakasgai berberak lantzen dituzte; matematikak, fisika, geografia, historia, ingelesa... Tituluak lortu nahi dutenen kasuan gainera, Bigarren Mailako graduaturarte ateratzeko azterketak bertan egiteko aukera dute ikasleek eta Lehen Mailako graduaturarako frogetan konbalidazioak egitekoarena ere bai.

Ikasturteari dagokion irakasgai mult-

zo osoa hartu gabe irakasgai zehatz batzuk hartu eta horiek lantzen dituen jendea ere badago; historia, hizkuntzak edo beste irakasgai alor bat bakarrik lantzen duena. Eta azkenik, badira ostiral arratsaldero egiten diren ehoziri (bolillo) eta josten ikasteko eskoletara bakarrik hurbiltzen direnak ere.

Ikasturteak urritik urtarrilera eta otsailetik ekainera bitarteko bi lauhilabeteotan banatzen dira. Lauhilabete bakoitzaren amaieran 2 asteko iraupena izaten duten ikastaro edo tallerrak antolatzen dira. Taller hauetan, egur eta zeramikaren zaharberitzeak, pintura lanak eta laminekin tridimensionalak egiten ikasten dute. Taller hauetan partehartzeko ez

“ikastetxe eta institutuetan lantzen diren irakasgai berberak lantzen dituzte; matematikak, fisika, geografia, historia, ingelesa...”

da ezinbestekoa ikasturtean matrikulatuta egotea eta arrakasta handiko gertatzen dira gehienetan.

Guztiz hontaz gainera H.H.I. ko irakasleek prestakuntza akademiko eta profesionalean aurrera egiteko orientazio zerbitzua ere eskeintzen diete ikasleei.

Egoera guztietako jendea

Egoera eta beharrezan oso ezberdinak dituen jendea matrikulatzen da H.H.I.n. Irakasgai eta azterketaz gainera, irakasleekiko gertutasunak eta ikasleekin arteko giro onak pertsona moduan garatzen eta bizitzari beste begi batzuekin begiratzen laguntzen die ikasle gahienei.

Langabetuak

Lanik gabe dagoen jendeak, oraindik atera gabe daukan titulua atera edo irakasgaiak erreparatzeko beharra izaten du. Hontaz gainera, jarduerak etengabeak



Oso giro ona dago ikasle eta irakasleen artean eta horrek asko laguntzen du ikasterako orduan.

eta orientazio zerbitzuak egoerari irtenbideak aurkitzen laguntzen dio.

Etorkinak

Gizartearen norabideari jarraituz, azken urteotan ikasle etorkinen kopuruak gora egin du. Momentu honetan 12 etorkin daude, batzuk hizkuntzarekin dituzte arazoak eta beste batzuk ezagupenekin. Talde bereziak osatzen dira eta hizkuntza edo bestelako jakintzak lantzen dituzte. Etorkinei bertako hizkuntzak ikasi eta gizartearen integrazteko bidea erretzen die.

“Irakasleekiko gertutasunak eta giro lasaiak aurrera egiten laguntzen die askori.”

Nagusiak eta etxekoandreak

Gizarteko bi talde oso ezberdin izan arren H.H.I. parte hartzeko orduan antzeko ezaugarriak agertzen dituzten pertsonak dira. Etxekoek animatuta edo etxean ezer egin gabe egoteaz aspertuta, asko dira euren ikasteko edo aktibitate-rako grina H.H.I.n asetzen duten nagusi eta etxekoandreak. Gaztetan ikasteko aukerarik izan ez zituzten irakasgaiak landu edo jakinminez jakinduriaren bideetan aurrera egiten duten pertsonak dira. Hauek dira oporretatik eskolara bueltatzeko zai izaten direnak. Badira hamar urtean eskolan dabiltzanak ere.



Ostiral arratsaldero eskulanetako taldea batzen da

Lantokirako behar dutenak

Badira lantokian tituloren bat eskatzen dietelako etortzen diren pertsonak. Horiek presio handiagoa izaten dute baina aldi berean hauek izaten dira eskolara motibaziorik handienarekin etortzen direnak.

Eskola utzi duten gazteak

Eskola utzi duelako, mailaren bat falta zaiolako edo unibertsitateko frogak gaintu ez duelako jende gaztea ere urreratzen da H.H.I.ra. Lanean edo beste ikasketa batzuek hasi bitarteko denboran ikasten jarraitzeko aukera ematen die H.H.I.ak gazte hauei. Irakasleekiko gertutasunak eta giro lasaiak aurrera egiten laguntzen die askori.



JESUS ORBEA 64 Urte. Erretiratu

Jesus bere andrearekin batera dago matrikulatuta H.H.I.n, 3. urtez. Gaztetan ikasitakoak gogoratu eta gauza berriak ikastearren joaten da eskolatera.

“Ni tailarrian ibili izan nok beti eta oin jubilauta nauanez eta asti pixkat dakatenez ba hona etortzen nok. Historia pixkat, matematikak, inglesa.. ikasi, ordenadorian ibili eta gustora. Nere ustetan ikasteko etxakok edaderik. Ni trankil trankil najatok, hooby moduan, derrigorrian etortzen diranak, horrek jaukek meritua. Zailena inglesa egiten jatak .



RAMONA PRIETO 53 Urte. Etxekoandrea

Ramonita etxekoandrea da eta astean bi aldiz euskerako eskolatera joaten da H.H.I.ra. Euskara pixkat gehiago jakin eta ezagutzeak asko asetzen du eta gustora etortzen da.

“ Euskeraz hitzegiten den herri baten bizi garenez, normala ikusten dut euskera ikasi nahi izatea. Lehen hitz batzuk banekizkien kalean ikasita baina ganoraz ikasteko horretan ahalegindu beharra dago. Zaila da baina gustatzen zait. Hemengo ikasteko modua oso ezberdina da orain nahi dudalako ikasten dut eta horrela askoz errazago ikasten da.



MIGEL ANJEL DEZA 35 Urte. Langilea

Migel Anjelek urtebete eskas darama H.H.I.n matrikulatuta. Lantokian titulazioa ateratzeko eskatu diote eta hortan dihardu buru belarri.

“ Hemen eskolan baino erreza- go ikasten da, irakasliak gehixao laguntzen dabe, atenziño gehixao emoten dabe. Eskolan giro ona dao. Batez be aukeria emoten dot-su, bestela igual sekula egongo ez zinan jentiaikin egon eta ezagutze-ko. Neri gehixen kostatzen jatana matematikak, dudarik barik.”

Korrika 2003; “Herri bat geroa lantzen”

Joan zen astean aurkeztu zuen AEK-k Korrikaren 13. Edizioaren leloa. “Herri bat geroa lantzen” izango da apirilaren 4an Maulen hasi eta apirilaren 13an Iruñean amaituko den 2003ko Korrikak zabalduko duen lelo nagusia. Aurtengo Korrikaren berritasun aipagarriena, Korrika-Laguntzaile egitasmoarena da. Egitasmoan parte hartzen duenak 10 euroren truke Korrika-Laguntzaile dela adieraziko duen txartela eta tximeleta itxuradun pin bat jasoko ditu. Txartelak, Euskal Herriko hainbat dendetan %15eko deskontuak jasotzeko aukera ematen du. Egitasmoaren helburu nagusia, AEKrentzat dirulaguntzak batzea da, helduen alfabetatzean diharduen erakunde honen egoera ekonomikoa hobetzeko asmoarekin. Soraluzeko



AEKk herriko tabernetan jarri ditu dagoeneko eskuragarri Korrika-Laguntzaile egiteko txartelak. Honetaz gainera, datozen asteetan AEKkoak herriko talde kultural eta norbanakoz osatutako Soraluzeko Korrika Batzorde bat osatzeko lanari ekingo diotela jakinarazi digute. Korrika badator!

Astelehenean San Blas

Astelehen honetan San Blas eguna da. Gipuzkoako beste herri gutxi batzuetan bezala Soraluzen ohitura da San Blasak bedeinkatzea. Astelehenean bi meza izango dira, bata 10:00etan meza izango da eta 11:30etan San Blas-en bedeinkapena.

Gaztelupeko Hotsak Cannessen

Gaztelupeko Hotsak disketekeoak Frantziako Canness hirian izan dira urtarriean. Eusko Jaurlaritzaren eskutik hiri honetan egiten den MIDEM izeneko musika-azoka internazionalen parte hartu dute beste 10 disketeke eta ordezkari euskaldunekin batera. Azoka honetan mundu osoko herrialdeetatik etorritako disketekeak hartzen dute parte, Gaztelupeko Hotsak bezelako disketeke xumeetatik hasi Sony moduko multinazional handietararte. Gaztelupeko Hotsakeko ordezkari moduan azokan izan ziren Ubane eta Zarrak bertan pasa dituzten 4 egunetan asko ikusi eta ikasi dutela aitortu digute, “mundu mailan musikaren merkatua zela dagan ikusi dogu eta konturatu gara espezializaziñua dala krisi garaian aurrera egiteko bide bakarra”. Euskal Herriko musika produkzioa oso bajua omen da Ingalaterra eta Alemania bezalako produkzio gune handien ondoan. Gainera euskal disketekeak oso lan gutxi egiten omen dute hemengo produkzioa kanpoan ezagutzera emateko eta “horrek atzerriko merkatuekiko hartuemanak asko zailtzen dittu”. Azkenik, datorren urtean ere Canesse-ra joateko prest daudela adierazi zigten.

Santa Eskea baserri eta kalean



Azken urteetan herrian izan duen berpizkundeari jarraituz aurten ere Santa Eskeko talde ugari irtengo dute herrian. Goiztiarrenak Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolako nagusiak eta Pil-pilean Euskara Elkartekoak osatutako taldekoak izango dira. Hauek, otsailaren

lean aterako dira baserriz baserri eta aurten gainera herriko koplarietz gain, Ainhoa Agirreazaldegia eta Jon Martin bertsolariak ere jardungo dute kopletan. Otsailaren 4an Santa Ageda Bezperan, Musika Eskolak eta Bertso Eskolak elkarrekin osatutako Santa Eskea egingo dute kalez kale. Arratsaldeko 18:30etan hasita, musika eta koplaz osatutako emanaldiak eskeiniko dituzte herriko leku ezberdinetan. Abesbatzakoak ere otsailaren 4an irtengo dute eta dagoeneko behar bezala entsaiatuta daukate egun horretarako prestatu duten errepertorio zabala. Besteok, gozatu besterik ez!



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



**Limpiezas
industriales**

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Bixente Olaizola

Soraluzeko Odol Emaileen
Elkarteko kidea

“Odola emotia, biharra dakan edozeiñekin elkartasuna eukitzia da”

Bi hilabetean behin, herriko hainbat lagunek odola ematen dute beharra dutenendako. Bixente, Odol Emaileen Elkarteko gainontzeko kideekin batera, antolakuntza eta koordinazio lanekin arduratzen da. Lehenengo, deialdia egiten dute odola eman nahi duen guztia jakinaren gainean egon dadin, eta gero, egunean bertan, mediku, erizain eta emaileen arteko koordinazioaz arduratzen dira. Bukatzeko, eta ahora zerbait eramatea gomendagarria denez, ogibitarteko gozoak banatzen dituzte odola eman dutenen artean. Horrela egin zuten azkenengo odol emate egunean, urtarrilaren 24an, eta horrela egingo dute hurrengoan ere, Martxoaren 12an. Bixentek gonbitea luzatu digu herritar guztioi egun hortan odola eman dezagun.

Zenbat jentek emoten dau odola plazentzian?

Bi hilabetean behin egiten da odol emotia Plazentzian, eta normalian 40-45 bat poltsa betetzen dira. Aurreko barriakuan gehituago, 50 poltsa; marka polita.

Odol premiña haundixa dago?

Normalian biharra betetzen dira. Oporrak izaten dira sasoi makalenak, baiña ostantzian jentia oso ondo erantzuten dau. Benetako premiña, nik uste dot, erreleban daguala. Badira edadiagaittik edo beste arrazoi batzuegaittik odola emotiari laga bihar izaten dotse; horren jarraitzailiak bihar dittugu, atzetik etorriko dan jentia. Horregaittik izan zan gure igezko lelua “EUTSI LEKUKOARI”.

Noiz sortu zan Odol Emailien Elkartia Plazentzian?

Gipuzkoan, eta baita Plazentzian be, 1.964-65 urtien inguruan sortu zan. Hasiera-hasieran, Elbarrera juaten ziran



Bixente Olaizola

odola emotera. Harrez gero, nik gogoratzen dotenez behintzat, Betanian (Gaztetxe azpitan), eta Anbulatorixuan egin izan da, eta azkenaldi honetan, Frontoiko eskolaurrian. Alde horretatik badakagu Elkartekuok premiña lokalen bat eukitzeko. Gela bat biharko genduke trastiak gordetzeko eta aukeria bi hillian behin gela batzuk erabiltzeko bebai.

Euskal Herrixan odol asko emoten da?

Bai, mundu mailako portzentai hundukenak emoten dira Euskal Herrixan. OMS-k 50 poltsa 1.000 biztanleko eta urteko gomendatzen dau gutxienez. Gu hortxe gabiz.

Zela deskribatuko zenduke odol emote ekintza?

Ekintza guztiz desinteresaua, alkartasun haundikua. Neretzat pozgarria izaten da era guztietako jentia alkarrekin ikustia; euskaldunak, erdaldunak, ideia batekuak, beste batekuak, ...danok asmo bakar eta berdín batekin: odola bihar daben edozeiñekin alkartasuna

eukitzia. Badira, gaiñera, odolik emon ez arren gure jardunian ekonomikoki laguntzen doskuenak; alde batetik Udalaren laguntza dakagu, eta bestetik, Elkarteko Bazkide Laguntzailiena.

Jentia orratzari beldurra dotsa?

Baleike, eta beldur hori errespetagarria da. Baiña ezjakintasuna be bada. Analisisak egitterakuan emoten doskue ba zatzada txiki bat? Ba hori baiño gehixago ez da.

Zela animauko zenduke jentia?

Propagandarik onena, nik uste, ahoz ahozkoa da, kuadrillan, lanekuekin...

Hemendik, gaur egungo emaile guztiak animau nahi nittuzke bakoitzak emaile berri bat ekartzera. Hau irakurtzen dozuen guztiok be gonbidatuta zaozte. Eta hemen entzundakuak entzun eta gero, uste dot, zeu be, Jon, konbenziduta ikusten zaitudala, ez?...Ez ahaztu, hurrengua Martxuan 12xan, eguastena.

Enbidua hartuta dago, hantxe egongo naiz

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Bolia
taberna



Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze

Mendi irteera

Eski irteera Kandantxura

Otsailean edurretarra.

Soraluzeko Mendi Elkarreak datoren otsailaren 22 eta 23-rako Kandantxura eski irteera bat antolatu du. Izena emateko epea otsailaren 13-an amaitzen da eta bulegoaren ordutegia hauxe izango da: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 7:30-etatik aurrera. Bidairen balioa bazkideendako 90 eurokoa izango da eta bazkide ez direnentzat 96 eurotako, prezio hontan autobusa, logela, 22-ko afaria eta 23-ko gosaria sartzen da. Animo eta apuntatu zaitezte, ez zarete damutuko.

Otsailerako mendi irteerak:



Otsaila 2 – Enaitz (1300m) mendira. Mendi hau Arantzazun aurkitzen da.

Otsaila 23 – Erlo (1026) mendira. Madarixa eta Azpeiti bitartean.

Pelota

Soraluzetarrak txapelketetan

Aritz Laskurain

2. Mailako Binakako Txapelketa jokatzeko ari da. Ligilako hirugarren partidua joan zen larunbatean jokatu zuen Iscar-en (Valladolid). Galdu egin zuen. Beloki II Pinedo 22

Gonzalez Laskurain 20

Ligilako azkenengo partidua larunbat honetan, otsailak 1, Iruñako Labrik pilotalekuan. Arbizu Galarza VI ren kontra. Bi bikoteek bina partidu irabazita dauzkate eta irabazten duena sailkatuko da finalerdietara.

Erlei Txurruka

Lezamako Txapelketako finalerdietan galduegin zuen. Amantegi Uriarte 22 Txurruka Errarte 16

Iñaki Jauregi

Hernaniko Txapelketako partidua irabazi du: Azagirre Mendizabal 22

Landa jauregi 15

Udaberri Torneoa. Gipuzkoako Inter-Klubs Txapelketian jarraipenean 22-13 irabazi du.

Aitor Atxotegi

Lagunarteko partidua jokatu zuen ostiraletan Elgetan eta irabazi egin zuen: Atxotegi 22

Garate 4

Jon Varela

Udaberri Torneoa: Gipuzkoako Inter-klubs Txapelketian jarraipenean 18 eta 5 irabazi zuen.

Jon Arrieta

Zaramagako txapelketan Aranzeta-rekin batera 22 eta 18 galdu zuen nappar bikote baten aurka.

Jokatuko duen hurrengo txapelketa Arabako open-a izango da bertan nagusien mailan parte hartuko du.

Futbola

Sasoi txarrak Ezozin

Soraluze futbol elkarteko hiru taldeak ez dira momentu onenean bizi, azkenaldian regional eta jubenil mailakoei emaitzek ez die laguntzen eta kadeteek azken partidua ezin izan zuten jokatu ezin zutelako hamaikako a osatu.

Regional taldeak jokoan zeuden 6 puntuetatik bakarra lortu du eta sailkapenean arazo handietan ez sartzeko Ezozin jokatuko duten partiduan garaipena lortu beharko dute. Partidua Elgoibarren aurka jokatuko dute, Elgoibar taldea sailkapenean Soraren atzetik aurkitzen da 6 puntutara beraz garaipena behar beharrezkoa dute.

Jubenilari dagokienez hauek ere talde nagusiaren bidetik doaz, azken bi partiduetan behintzat, eta azken 6 puntuetatik bakarra lortu dute. Puntu bakarra hori etxean lortu zuten Ikasberri talde azpeitiarraren aurka eta ez ziren oso gustora gelditu azken minutuetan denetik pasa bait zen eta Ikasberri bina berditzea lortu bait zuen.

Kadeteek beraien liga beste taldeek baino astebete lehenago bukatu zuten, Eibarren jokatu beharreko azken partidua ezin izan bait zuten jokatu jende faltagatik. Partidu honek ala ere ez zuen garrantzi handirik Sorako gartetxoendako igoera mailako ligilarako ez bait dira klasifikatu. Orain Gipuzkoako kopan parte hartuko dute.

Emaitzak:

Regionala:

SORA 3 – Mutriku 3

Intxurre 4 – SORA 2

Jubena:

SORA 2 – Ikasberri 2

Billabona 3 – SORA 2

Kadetea:

SORA 2 – Ikasberri 1

Azken partidua ez zuten jokatu.

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

ARRANO tabernia

Telefonoa 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Iñaki Gamazo

“Kurutzeberri oso mendi ederra pentzatzen jata”

Grabadora eta argazki makina hartu eta kalera urten dogu gure galdera intimistei erantzungo dotsen bihotzeko pertsonai baten bila. Umea besoetan duela aurkitu dugu Iñaki. Ehiza eta mendia ditu gustoko eta familiarekin egotea era bai.

Izen abizenak, edadia ta lanbidia:
Iñaki Gamazo, 34 urte dittut ta komertziala

Egun baterako planik onena

Familixiak in egun pasa kostaruntz juatia, Getarixara adibidez.

Jatetxe batian eskatuko zenduken menua

Ensaladia ta arraina plantxan

Gustoko toki bat.

Donostia asko gustatzen jata.

Zer aldatuko zenduke Soraluzen?

Komunikabidiak dexente hobetuko nittuzke bai inguruko herrixetara baita hiriburuetara.

Autopistako lanak dirala ta Maltzaga itxita egotia eragin al dotsu?

Ez, neri ez ze herrixan bertan eitten dot lan, baina jende askondako egoeria ez da oso ona izan.

Ze afiziño dauzkazu?

Mendixa, familixiak in egotia ta kazan eittia dittut gustoko.

Nora juaten zara kazan eittera?

Valladolid aldera. Aitan herrixan koto bat daukagu ta han ibiltzen gara. Gu “caza menorrian” ibiltzen gara, erbi-xak, perdizak ... harrapatzen.

Gaztiak jarraitzen al dabe kazan eittera juaten?

Ez, gero ta jende gutxiao juaten da ta kazia be gero ta gutxiao dao.

Inguruko ze mendi dozu gustoko?

Kurutzeberri oso mendi ederra pentzatzen jata. Hemen jende askok ez daka mendi honetarako joerarik ta nehixao izaten dau Aizkorri edo Anboto bezelako ezagunaguetara juatia.

Ederrena edo aberatsena?

Aberatsena, holan bizitzia erosuagua



Bertso Begiz

Iñakirentzat hoherik ez da familia eta ehiza, aldapa gora txakurrei laster etaratzen dotse bitza.

Eta gero jakina, txiste kontatzen fina.

Eta hortxe dago giltza. Bilbotarraren antzerakua da ehiztariaren hitza.

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Iñaki Gamazo

izan leike.

Zure bertuterik handiena?

Pertsona trankila naizela uste dot.

Eta zure defekturik txarrena?

Batzutan nagixegixa naiz, konstanti-
gua izan biharko nintzake.**Zelan dao Soraluze umiendako?**

Oso gaizki. Herrixan ez dago toki onik umiekin egoteko ta giro txarra daguanian taberna edo kafeterixetara juan

bihar izaten zara.

Amaitzeko, kontauko al dotsezu txisteren bat Pii-pileaneko irakurlieri?

Zein da ein leiken negozioirik onena: Bilbotar bat balio dabenagaittik erosi ta berak balio dabela pentsatzen dabena-gaittik saldu.

(Iñakik txiste hau oso gustoko dabela esan dosku, familixa bizkaitarra dauka ta)

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipirotiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
kombinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87


Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Argazki zaharra



1951 Plazentziar pelotarixak Donostian

Argazki honetan, 1951.urteko uztailaren 1ian Nestor Iñurrieta eta Juan Karlos Etxaniz Plazentziatarak Atano 10.naren eta Larrañagaren kontra jokatu zeben partiduko agurra jasotzen da. Partidua La Voz de España txapelketaren barruan jokatzen zan Donostian eta Iñurrieta eta Etxanizek 22 eta 7 irabazi zotsen beste bi aurkarixei. Zorionak orduko partez!

Egoitz Unamuno

Lehiaketa


Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

**DEITTU
943 75 13 04 ra**

Aurreko irabazlea: Elena Madrid
Erantzuna: Kirueta



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



**TABERNA ETA
JATETXE
ZERBITZUA**

Eguneroko
menuak eta
pintxoak

Tel.: 943 75 13 83

Santa Ana kalea

20590 Soraluze



Ugaraxo



2.002ko urtarrilaren 13. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

XXI. mendeak dakarrena, lantegiak ikastetxe bihurtzea



Aurten lan asko egin dugu ikastola zaharra trasladatzeko. Nahiz eta trasladoko gizonak etorri, lanean jo ta ke ibili gara.

Ikastola berria ikustean txikiegia zela iruditu zitzaigun, baina gauza guztiak jartzean, guretako nahikoa zela konturatu ginen. Ez dago ingeles gelarik, ez dago musika gelarik... dena gure gelan egin behar dugu. Patioa txikia da eta zutabez beteta dago. Patio orduan ordenagailuan ibiltzen

gara andereñoa baldin badago. Andereñoa ez badago futbolearen jolasten dugu.

Amezua guztitik gure gela txikienetarikoa bat da. Eta bertan oso ondo pasatzen dugu. Jolastokiko marrazkiak oso ondo eginda daude, eta gelak bizi-bizirik dira. Beste ikastolarekin konparatuta askoz modernoagoa eta biziagoa da.

Ametsa

Maria Galiziako neska bat da. Muxia izeneko herri txiki batean bizi da eta hamabi urte ditu.

Mariari bere herriko hondartzan paseatzea eta igeri egitea gustatzen zaio, baina eskolara zihoala hondartzara begiratu eta dena beltz-beltza zegoela konturatu zen, berehala eskolara abiatu zen eta andereñoari ea zer gertatzen zen galdetu zion:

-Andereño, itsasoa beltza dago, baita hondartza ere eta etxeko lehiu guztietan "NUNCA MAÍS" idatzita dago.

-Bai, arrazoi guztia duzu "PRESTIGE" izeneko petroliuntzi batek istripua izan du. Eseri zuen lekuetan eta dena azalduko dizuet.

Andereñoak bere azalpena egiten hasi zen. Luzea eta korapilatsua zen eta Maria gero eta aspertuago zegoen. Burua mahai gainean jarri eta lo hartu zuen. Amesten hasi zen...

Bere herriko hondartzan zegoen. Eseri eta hondarra eskuetan hartu zuen; txuri-txuria zegoen Karibeko hondartzetan bezala. Ura ere urdin-urdina zegoen mantxa beltzik gabe. Paradixua iruditu zitzaion.



Baina bapatean zerbait likitsua eta nazkagarriak eskua ikutu zion:

-Ah, hau nazka!!! Esan zuen Mariak bere eskuak astinduz.

Ingurura begiratu zuen harriturik. Dena beltza zegoen! Hondarrak autopistako errepidea ematen zuen eta ura lokatzez beteta zirudien. Bapatean Maria konturatu zen bere gorputza ere suntantzia nazkagarri hartaz estalita zegoela.



Maria izerdi batean esnatu zen. Gela guztia berari begira zegoen. Tinkoago eseri zen eta ileak atzeraka bota zituen. Orduan Mariak proposatu zuen:

-Zergatik ez gara hondartza garbitzera joaten?

-Oso ideia ona iruditzen zaigu, Maria.-esan zuen bere irakasleak.

-Baiiii, goazen bai!-eta denak hondartzara joan ziren.

Hondartzan zeudela, Mariak bere lagun bati esan zion:

-Espero dut Euskal Herrira ez iristea, han bost lagun on ditut eta.



Zer moduz ikastetxe barrixan?

BEÑAT SIERRA 11 urte 6. B

Iaaaaju!
Ondo. Hemen ni naiz tribuko nagusixa. Beheko tailerreko zaratia entzuten da eta lurra mobitzen da baina danera ohitzen da bat.



IXONE IÑARRA 11 urte 6.B

Oso ondo. Nobixorik ez daukat baina ondo. Txarrena da Zuzendaritzako soladuak oin bigilatu egitten gaittuztela goititik. Ezer ez da lehenago moduan.



MARTA AIORA 11 urte 6. B

Ondo. Hemen dana entzuten da. Andereño bat gure tribuko gaztetxoren bati bronkia botatzen diharduanian barre edarrak egitten dittugu.



OIER ARIZNABARRETA 11 urte. 6.A

Kristona da. Tribuko nagusixaren emazte egin naizenetik dana oso ondo doia. Ehizan urtetzen dogunian ixilixago ibili bihar dogu, baina ondo.



Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **denborapasako aldizkari edar bat** irabazi ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak: Mikel Garmendia eta Iker Benito

Erantzuna: **Susana Uriarte**
Saria **IRATXO Goxodendan eskatu**

Esaxozu... (amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Xuban, 5.mailakueri esan ez egitteko antxixika entrenamantuan (Urko, Eneko, Victor, Mikel, Jon). Aupa Soraluzeko mutilak!! Noiz jarri bihar dozue gaztetxuendako zoezer? aspertu egitten gara (Ixone, Mireia, Marta eta Irati). Egoitz Santa Agedan guk ondo abestu bihar dogu. Espero dogu zuk ondo abestia bestela preparau zaittez Itziarren bron-



kia entzuteko. "Egoitz onana zara!" (Jon G. eta Iker B.).Andereño Marimer, etxekolan gutxiago mesedez! (Jon P.). 6.A Okena. 6.Ako mutilak eta neskak jatorrenak gara. Lore, bizkon osatu! (Ohiane, Katia, Jone, eta Miren). **MUXU HAUNDI BAT PIL-PILEAN ALDIZKARIKOOI !**

Bertsotan

Gelako gora-beherak



Gelan bada neska bat
izenez Deiene
bere lagun handia
betidanik Ane
gaur umore onean
etorri da Ixone
ta berari begira
hor dago Marije

Neska berritsuenak
Marta ta Mireia,
mutil bihurriena
Joanes laguna.
Burrukan ba dabiltza
Irati ta Gaizka,
banatzera hor doaz
Leo eta Laura.

Jefry eta Iñigo
marrazten trebeak,
Leo, Asier ta Iñigo
futbolean onak,
Aimar eta Jonathan
ikasle jatorrak,
txiste onak botatzen
Oier da bikaina.

Nahiz eta sarri ibili
gutziz alperturik,
lanari ez diogu
inongo beldurrik,
batzutan burruketan
ta haserreturik,
baina inork ez du falta
bere lagun minik.

HOROSKOPOA

ARIES: kontuz ibili
txoriekin, buruan kaka
egingo dizute eta.

TAURO: zezenek
suerte txarra emango
dizute.

GEMINIS: kontuz
kantatzean, kristalak
puskatuko dituzu eta.

CANCER: kontuz
ilearekin Mortadelo
bezala

geratuko zara eta.

LEO: lehoi itxura izan
arren, gauak beldurra
ematen dizu.

VIRGO: kontuz
tronparekin ebaki egingo
dizute
eta.

LIBRA: pisa zaitetz, zuk
uste baino pisu gehiago
duzu eta.

ESKORPIO: eskorpioi
batek ipurmasailean
zizatuko dizu.

SAGITARIO: kontuz
konstelazioekin zure
aurpegi zatarra agertu
eta gainera jausiko
zaizu.

CAPRICORNIO: zure
lagunik onenak adarrak
jarriko dizkizu.

AKUARIO: kontuz
suarekin gauean pixa
egingo
duzu eta.

PISCIS: pistinek beldur
handia emango dizute.
bustitzeko arriskua
duzu.

Zure seme-alabek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten!



Plaentxi H.I.

Soraluze B.H.I.

Aurrematrikula epea otsailean zabalduko da.
-2tik 16 urtera bitarteko gaztetxoak-



*Zure San Balentineko lore sorta
etxera eramango diogu!*



BELARRAK

Gila zubian

Telefonua: 943753011

646439040

ZATOZ Haur Hezkuntzako gela berriak eta haurtzaindegia IKUSTERA



elgoibar **ikastola**



INAUGURAZIOA

otsailaren 8an, 11.00etan

INTEGRALA
ETA ATSEGINA

EUSKARA

ELEANITZA

ESKAINITZA

INTEGRALA

EGUNERATUA

SEGIMENDU

INDIBIDUALIZATUA



HAUR HEZKUNTZAKO MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 3TIK 14RA ARTE

Pedro Miguel Urruzuno, Koop. / Ermuaran bide 7 - Posta 53 / 20870 Elgoibar - Gipuzkoa

Telefonoa: 943 74 44 41 / Faxa: 943 74 94 36 / elgoibar@ikastola.net